



Urteroko ohiturari helduz, gaur Harri Jaia

BEDAIO ▶ Baserria eta uzta eguraldi txarretik babesteko eguna festa bihurtzen dute bedaioarrek

EGITARAUA ▶ Meza, bertsolariak, hamaiketakoa, bazkaria, trikitalariak... izango dira ▶ 5

TOLOSA ▶

Ezker abertzaleak mobilizatzaera deitu du, «egoera salatzen» ▶ 3



I. GARCIA

‘El florido pensil’, anoetar erara

ANOETA ▶ Hogeit bat lagun buru-belarri ari dira herri antzerkia prestatzen; jaietan eskainiko dute emanaldia, frontoian ▶ 6



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 7ra



Tfn.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



IBARRA ▶

Gaur hasiko dira Ion Mintegiaga epaitzen

Kontzentrazioak egingo dituzte herrian ▶ 4

LEITZA ▶

Salaketa kartel bat dela-eta batzarretik joan da UPN

Eserlekuak itzultzea eskatzen zuen Larrain plataformaren kartelak ▶ 7



INGURUMENA ▶

Klima aldaketa, Aste Berdearen ardatza

Nazioarteko Ingurumenaren Egunaren harira, Tolosako Udalak ekitaldi mordo antolatu ditu aste honetarako



Aste Berdea dela-eta hainbat kartel jarri dituzte herrian. N. L.

NOELIA LATABURU

Iragan astelehenean hasitako Aste Berdeak aurrera darrai Tolosan. Ardatz nagusi gisa klima aldaketa dute aurtengoan eta antolatutako ekitaldi ezberdinek gaia gertuagotik ezagu-

zko aukera emango dute. Esate baterako, Tolosako parke arkeologikoan —Errota liburutegian— ezarri duten erakusketak igurumen arazo honi buruzko datuak ematen ditu. Ez da, haatik, antolatutako ekintza bakarra eta, beraz, gazteak

zein helduak arazora hurbilduko dituzten ekitaldi ugari izango dira egunotan.

Beroketaren ondorioak

Iaz ere, garai honetan, Udaleko Ingurumen Departamentuak bultzatuta, herritarrei «klima aldaketak datozen urteotan alor guztietan eragingo dituen arazoan gainean» informatu zien.

Hala, datuen arabera, 2050. urterako Kontxako hondartza eta Pirinioetako glaziarak desagertu daitezke. Baina ez dira horiek beroketa globalak eragin ditzakeen ondorio bakarrik. Aipatu ondorioak hainbat eremutan jasango dituzte, besteak beste, ekonomian, ingurumenaren eta gizartearen. Espezie asko desagertu daitezke, betiko galdu, eta beste askoren populazioa eta haien banaketa murriztu egingo dira. Era berean, uste da beste ondorio hauek ere gertatuko direla: targa eta tundrako zonak desagertu egingo dira; baso epelek ipar aldera joko dute; zona as-

EGITARAUA ▶

Aste Berdea 06ren baitan, klima aldaketari buruzko erakusketak ipini dute, Errotan, hil honen 5era bitarte.

GAUR

19:00. Agenda 21eko Aholkularitza Batzordearen bilera, udaletxeko batzar aretoan. Bertan, zarataren mapa, Tolosa 2015ean proiektua eta inmigranteen egoeraren diagnostikoa aurkeztuko dute.

ETZI, LARUNBATA

Goizean. mural pintaketa, Zuloaga Txikin.
18:00. Zinema Kultur Etxean, *Irla* eta *Mendekatzaileak* filmeekin, Udal Gazteria sailak antolatuta.

EKAINAK 4, IGANDEA

09:30. VII. Uzturre igoera, Santa Klaratik aterako da. Eta 10:00etan abiatuko da Izaskundik. Uzturre gainean, txistulariak eta hamaiketako izango dira

EKAINAK 5, ASTELEHENA: NAZIOARTEKO INGURUMEN EGUNA

Goizean. Tolosako Udalaren eta IHOBERen arteko hitzarmenaren sinadura.

kotan urrik gabe geldituko dira —eta bizitzeko ezinbesteko baliabidea da—, eta irla batzuk guztiz desagertuko dira.

ERLIJIOA ▶

Pentekostes eguna dela eta, bi otoitzaldi

Pentekostes eguna dela eta, Andre Mari parrokiak bi otoitzaldi antolatu ditu datozen egunotan. Hala, biharkoan 16:30ean erretiroa egingo dute parrokiaren, euskaraz, eta etzi ere, larunbata, 10:30ean, erretiroa egingo dute, parrokiaren bertan.

ERLIJIOA ▶

Sakramentuen Lagundiaren 150. urteurrena

Sakramentuen Lagundiaren 150. urteurrena da aurtengo; hori dela eta, bidaia turistiko eta, aldi berean, erromesaldia antolatu dute, Frantziako ekialdetik barrena. Parte hartu nahi duenak hil honetan eman behar du izena. Bidaia uztailearen 27tik abuztuaren 1ra izango da, biak barne. Autobusa goizean goiz aterako da Kondeko Aldapa 22tik. Honen guztia berri jakiteko Parrokiako bulegoetara jo, 17:00etatik 19:00etara, edota 943 670 855 telefonora deitu.

KIROLA ▶

TAKEn jokatzeko entrenamendua bihar, Usabalen

Aurtengo arrakasta eta gero, Tolosako Adiskideok Kiroelkarte lanean hasi da datorren urteari begira. 06-07 denboraldirako entrenamendu saioa egingo dute, 1993 eta 1994 urteetan jaiotako gazteek, Usabal kiroldegian, bihar, 17:30etik aurrera. Beraz, datorren denboraldian saskibaloian jokatu nahi duten gazteak ager daitezela bertara eta Goar edo Juan Marirengatik galde dezatela.

Agenda 21eko Aholkularitza Batzordearen bilera, gaur

Herriko hainbat sektoreek osatzen duten Aholkularitza kontseiluak ondorengo puntuak aurkeztu eta aztertuko ditu. Batetik, *Tolosa 2015* proiektua aurkeztuko dute. Helburua «Agenda 21en espezializazioa eta 750. urteurrenaren» erakutsi dienetik abiatuta, «aurrera begirako hausnarketak ireki bat» egitea, Tolosaren etorkizunari buruz eta haren eronka eta aukerei bu-

ruz, «guztiori etorkizun hobea bermatzeko bide horretan».

Bestetik, garapen jasangarria dela eta, Tolosako Ekintza Planaren 7. Lerro estrategikoa —Udalerriko kalitate akustikoaren gestioa eta kontrola hobetzea— proposatutako zarata mapa aurkeztuko dute, kutsadura akustikoaren oraineko egoera zein den jakiteko. Horretarako, lehenik AAC ize-neko enpresak diagnostiko

akustiko bat egin du. Azterketa honetan, oraingo egoerak ez ezik, aurrerantzean izango direnak ere aintzat hartu dira, bai fokuz berriei dagokienez, bai erabilera berrien garapenera dagokionez.

Eta, bileraren amaieran, inmigranteek Tolosaldean duten egoeraren gaineko diagnostikoa aurkeztuko dute. Azterketak Tolosaldean dauden atzerriarrak hartu ditu, baina Eu-

ropako Batasunetik kanpokoak direnak. Ondorengo esparru hauek aztertu dituzte: kultura, hezkuntza, lana eta lan munduan sartzeari, euskara, justizia eta hiritarren segurtasuna, laguntzen duten erakundeak, osasuna, gizarte zerbitzuak, egoera administratiboa eta etxebizitza. Udaleko Gizarte Zerbitzuak bere gain hartu zuen proiektua eta haiek arduratuko dira jarraipenaz. ◀

hilberria ▶

**Ricardo Toribio**

Atzo hil zen, Donostian



heriotzak
dakarkigun samina
lagun gaitzala elkartasunak
garaitzen ezina

Ricardo semearen lagunak

PASAI ANTZO, 2006ko ekainaren 1a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

POLITIKA ▶

Konponbide mahai bat osatu behar dela dio ezker abertzaleak

«Egun bizitzen dugun egoera salatzen», manifestaziora deitu dute biharko, 19:30ean, Triangulotik abiatuta



Agerraldia egin zuen, atzo, eskualdeko Askatasunak. ESTI EZEIZA

ESTI EZEIZA

Askatasunak atzo prentsurrekoa eskaini zuen Tolosaldeko ezker abertzalearen «Euskal Herriak pairatzen duen egoera ez demokratikoak berdin jarraitzen duela» salatzen. Hori dela eta, euskal jendarte-ari «Euskal Herri osoan erresistentzia bat irekitze eta defendatzearen alde», modu iraunkor

batez, mobilizatzen deitu du Askatasunak. *Errepresio politikorik ez! Baldintza demokratikoak orain!* lelopean, manifestazioa egingo dute bihar, 19:30ean, Triangulotik.

Haien ustetan, «azken bi hilabeteetan, leundu beharrean, zenbait tokitan okertu egin da egoera; une honetan, PSOEko Gobernuaren aldetik, errepresio politikoa areagotze larri

bat ematen ari da Euskal Herriari». Horren adibide jarri dituzte indar polizialek euskal errepide eta kaleetan duten presentzia handia; debeku politikoa eta zitazio judizialak biderkatu izana; euskal preso politikoen aurkako neurri errepresiboen larriagotzea; eta euskal iheslari politikoen kontrako jazarpena bere horretan mantentzea. Askatasunaren

irritiz, «zanpaketa egoera iraunkor honek, helburu politikoa argia du»: Euskal Herriaren benetako prozesu demokratiko baten hastapena errepresio bidez galaraztea. Eta haien iritzi, horretan daude une honetan Zapatero eta Imaiz, «prozesua moteltzen eta desitxuratzten». Are larriago ere, «Euskal Herriaren mahai baten inguruan eman eta zabaldu behar den eztabaida politikoa nahi baitute, segituan Monkloan sartu eta bien artean kudeatzeko». Hau guztia «bide errepresiboa erabiz ari dira egiten».

Aldarrikapenak

Egoera honen aurrean, hainbat aldarrikapen egin nahi dituzte: alde batetik, «ezinbestekotzat» jotzen dute Euskal Herriaren konponbidearen mahai bat eratzeko, eta gutxiengo baldintza demokratikoak ezartzea euskal jendarte osoarentzat. «Hau ez bada betetzen, eta gutxiengo demokratiko horiek ukatzen badira, konponketa prozesu osoa ukatzen da. Horregatik, talde minoritario horiek, askatasun marko berri baterako abiapuntu izan behar dute». Honez gain, beharrezkotzat jotzen dute «Auzitegi Nazionalaren esku-hartzea Euskal Herriari begira desageritzea: ez atxilotzerik, ez zitaziorik, ez epaiketarik, ez salbuespeneko legedirik euskal herritarrentzat».

Bestalde, Askatasunaren aburuz, «hau bezain garrantzitsua dugu gure herrian ematen den polizia estatu egoerarekin bukatzea eta, ondorioz, errepresaliatu politikoa guztiak ere aitortzea».

TOLOSA ▶ KULTURA

Zinema sustatzeko proposamen berri bat aurkeztu du Zine-klubak

Leidorren eraberritze lanak direla eta, honen itxierak «egoera okertzea ekarri du»

E. EZEIZA

Tolosako Zine-klubak Kultur arduraduneri eta Udalarari, «zinemaren aldeko apustua egiteko garaia» dela erakustearren, proposamen berri bat plazaratu die. Haien ustetan, «Leidorren itxieraren aurretik egoera txarra bazen, azken denboraldian oraindik ere okerragoa

da». Hori dela eta, etorkizunearako planteamendu ezberdin bat aurkeztu dute, eta hau Tolosako zinezaleek Kultura Sailari egindako ereduaren oinarritzen da.

Programazioaren aldetik, hiru sailerako filmak eskainiko lituzke, ikusleko ezberdinari zuzenduta: helduenentzat, klasi-koak eta bertsioko bikoiztuak;

gazteentzat, zine generoa; eta txikienentzat, haurrentzako emanaldiak. Honela, «ikusleko heterogeneo bat biltzea lortuko luke Leidorrek». Kudeaketa alorrean, eredu aldaketa bat eman behar litzatekeela uste dute, «irabaziak lortzeko xedea alde batera utziz». Honek «programazioa txirotzen baitu, eta Kultura Sailaren bete behar-ko lana oztopatu».

Honez gain, planteatzen dute «DVD euskarriko saioetarako, profesionalki zine mundura loturik dagoen norbaitek zerrenda bat prestatzea, eta honetarik batzuk aukeratzeko joatea».

Bestetik, Zine-klubeko saioetarako, orain arteko egitarau bereziarekin jarraituko lukete. Eta, azkenik, estreinaldietarako, FIDES enpresarekin lan egi-

tea proposatzen dute, Arrasateko eta Elgoibarko Udalek egiten duten bezala.

Zine-Klubak, gainera, Leidorrek lehen zuzen xarma berreskuratu nahi du. Horretarako, eskualdeko herritarrei prezioak jaistearen eskatzen dute, eta Udalararekin akordio ekonomikoak hitzartu.

Aldundiak, bere aldetik, errekurtso kulturalen errendimendua hobetzearen, Koldo Mitxelena Institututik koordinatuko den eskualdeko sare bat martxan jarriko du. Hala, proiektu honek zinemari zuzendutako alor bat du, zine aretoak eta zinema bera bultzatzeko. Baina Zine-klubeko iritzi, honek arazo bat du, «Udalak baitira egitasmoa bultzatu behar luketena».

BEDAIO ▶

Manifestazioa, emakumeekiko erasoak salatzen

Herenegun, Barakaldon jatzotako emakume baten erailketa salatzen, *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartu* lelopean kontzentrazioa deitu du gaur, 20:00etan, Triangulotik, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxoak plataformak.

ANOETA ▶

Paul Nicholsonen solasaldia, gaur, Maiatza Gorrian

Paul Nicholsonek *Globalizazio neoliberalaren aurkako borroka Euskal Herriaren eta munduan saioa eskainiko du gaur, 19:00etan*, Gaztetxean, Maiatza Gorrian. Nicholson nazio mailako erresistentzia ekitaldian ari da parte hartzen zuzenean azken urteetan: Munduko Gizarte Foroan, mundua zuzentzen ari diren erakundearen aurkako protestetan... Horietako batean, Hong Kong 2005, Nazioarteko Merkataritza Erakundearen aurka protesta egiteagatik atxilotu zuten. *Lurrik gabekoen mugimendua* bideoa ere izango da ikusgai.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea.

Medikua: 65 23 39

- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134

- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea:

672411

- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

- ▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

- ▶ San Esteban: 006800

- ▶ Gernikako arbola: 006900

- ▶ Amarozko dispen.: 672637

- ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536

- ▶ Gurutze Gorria: 674888

- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970

- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02

- ▶ Donostiako autobusa: 361740

- ▶ Tolosaldea bus: 650621

- ▶ Leiztaran autob.: 948 221015

- ▶ Taxia: 670420

- ▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820

- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

- ▶ Tolargi: 650016

- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325

- ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ POLITIKA

Gaur hasiko da Mintegiagaren aurkako epaiketa

2002ko urriaren 1ean atxilotu zuten ibartarra Bilbon; gaur, bihar, ekainaren 8an eta 9an izango dira saioak

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko da Madrilan Ion Mintegiaga ibartarraren aurkako epaiketa, eta datorren ostirala bitarte luzatuko da, gaur, bihar eta ekainaren 8an eta 9an izango baitira saioak. ETA-rekin kolaborazioa leporatuta, Mintegiaga Bilbon atxilotu zuten 2002. urteko urriaren 1ean. Bi alditan atzeratu dute epaiketa, otsailean egitekoa baitzen hasieran, eta martxoan ondoren.

«Oso une latzak izan ziren atxilotu zutenean eta ondorengo egunetan, ez baikenuen haren berririk izan inkomunikazioan eduki zuten 5 egunetan eta isolamendu egoeran izandako ondorengo lauretan; azkenean, Soto del Real espetxera eraman zuten». Horrela gogoratzen du unea ibartarraren sendiak; halaber, bisiten baldintzak —10 lagunetara mu-



Mintegiagaren lagun bat, eta Maria Jesus Oiarbide, ama. HITZA

rriztuta, larunbatetan eta bisean bisekoa astean zehar—, urrun egoteak dakarrena — bi auto istripu—, kartzelan ikasketekin jarraitzeko zailtasunak... salatu nahi izan dituzte. Bestalde, epaiketaren atarian, «egungo egoera ikusita, ilusionatuta, baina aldi berean kezkatuta» agertu dira, «egoerak onera egin duela dirudien arren, presoekiko politikak

okerrera egin baitu nabarmen».

Ibartarrari babesa eskaini asmoz, gaur epaitegian izango dira sendia eta lagunak. Herrian ere jasoko du babesa; izan ere, Ibarra Herri Ekimenak konzentrazioa deitu du, ekainaren 8an anbulategiaren parean eta ekainaren 9an Kultur Etxearen parean, biak 19:30ean.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Garaipenarekin ekin dio Euskal Kopari Ibarrak

4 eta 7 irabazi zion Xaguacub.com taldeari; hurrengo, Astraburuko Racing-en aurka

ERREDAKZIOA

Euskal Kopako lehen kanporaketa jokatu zuten larunbatean Ibarra areto futbol taldeak Ermuako Xaguacub.com taldearen aurka, eta garaipenarekin bueltatu zen etxera, 4 eta 7ko emaitzarekin, hain zuzen.

Ibarra-koen prentsa ardura-dunak azaldutakoaren arabera, ibartarren nagusitasunarekin hasi zen partida. Aukera ugari izan zituzten, baina ez zuten baloia sare barruan sartzean asmatzen. Ibarra nagusi bazen ere, Ermuako taldea aurreratu zen. Karrerak atsedenerako minutu bat geratzen zenean berdindu zuen partida. Bigarren zatian Ibarra-ko-

en nagusitasuna areagotu zen; hala, 26. minutuan Labakak sartu zuen 1 eta 2koa. Berdinketa iritsi zen segituan, baina Ibarrak bi gol sartu zituen jarraian. Etxeko taldeak ez zuen etsi eta beste bi gol sartu zituzten. Urduitasunen erori gabe, orduan erakutsi zuten ibartarrek euren joko onena, eta Hautsiren eta Pradosen golen ondorioz 4 eta 7 jarri zuten markagailua. Horrela amaitu zen partida.

Euskal Kopako hurrengo norgehiagoka Astraburuko Racing taldearen aurka izango du Ibarrak. Partida hau larunbatean izango da Astraburuko kiroldegian, 18:30etik aurrera.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA



Uzturpekoak txapeldun

Erredakzioa ▶ Uzturpe Ikastolako mutil alebinek (Aitor Gonzalez, Ibai Yañez, Goar Lopetegui, Jon Romero, Egoitz Ezeiza, Imanol Zubelzu, Asier Lizarburu, Mikel Alamo, Josu Ibarbia, Iñigo Garmendia eta Unai Mateos) areto futboleko txapelketa eskuratu zuten pasa den larunbatean, Pasaiako La Annunciata ikastetxearen aurka 7 eta 3 irabazi ostean. Aitzol Oiarbidek eta Xuhar Sarasolak entrenatzen dituen taldeak partida bikaina jokatu zuen, eta jokalariek futbol maila («derra») erakutsi zuten. HITZA

ERREMONTEA ▶

Zeberio II.ak irabaziz ekin dio Gipuzkoakoari

Gipuzkoako Erremonte Txapelketari ekin diote, Zeberio II.a elduindarrak eta Zubizarretak osaturiko bikotea eta Altuna amezketarrak eta Ionek osaturikoaren aurka. Lehen partida honetan, 40 eta 32ko emaitzarekin Zeberio II.a eta Zubizarreta izan dira garaileak.

IBARRA ▶

'Erreleboa' antzezlana bihar, Kultur Etxean

Txalo antzerki taldeak *Erreleboa* antzezlana eskainiko du Ibarra Kultur Etxean bihar, 22:30ean, Kutxa Gizarte Ekintzaren laguntzaz. Sarrerak Kultur Etxean eskuratu ahal izango dira, goizez 10:30etik 13:00etara eta, 15:30etik 21:00etara arratsaldean.

IBARRA ▶

Sandra Lopez, 150 metrotako txapelduna

Sandra Lopez Uzturpe Ikastolako ordezkariak larunbatean Tolosako Berazubiko zelaietan izandako Euskadiko Atletismo Txapelketan, infanteletan, 150 metrotako Euskadiko txapela eskuratu zuen eta luzera jauziko bigarren postua. Ainara Otamendi 6. izan zen pisu jaurtiketan.

Diberti zaituzte zientziarekin kutxaGunean

KutxaGuneako leihatilan kupoi hau erakutsiz gero, museorako bi sarrera doan jasoko dituzu hamar urtetik beherakoentzako.

Eskaintza honek 2006ko irailaren 30a arte balio du.



GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Tolosaldean AHT gelditu!

Euskal Autonomi Erkidegoan, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua *Euskal Y* bezala ezagutzen da. Sare hau Nafarroako AHTarekin lotu nahi da. Espainiako Sustapen Ministerioaren planen arabera, Arakil bailara eta Oria haranen artean (Ordizian ala Tolosan) kokatuko litzateke bi sareen arteko lotunea.

Honako hauek dira AHTren proiektuak Tolosaldean izango litzuzkeen ezaugarri batzuk: *Euskal Y* delakoaren trazaketa, 19 kilometrotakoa. Honekin, ikaztegieta (herriaren parean doa Aldabako lurretatik), Ale-

gia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil eta Aduna izango lirateke kaltetu zuzenak.

Tunelak ere egin behar dituzte: 13 kilometro tunelen bidez, hain zuzen. Ibilbidearen %70 lurrazpitik, beraz. Aipagarriak dira: Aduna eta Andoaingo udalerrietan Belkoaingo tunela (4 km), Anoeta eta Zizurkil artean Basagaingo tunela (2,2 km), Montezku, Aldababiki eta Hernialde zeharkatzen dituzten 1,5 kmko tunelak, edota kilometro bat inguru luketen Langaurreko tunela (Alegia) eta Urkamendikoa (Zizurkil).

Tolosaldeko zati honetan, 13 hondakindegia aurreikusten dira, guztira 72 hektarea lur harrapatuz, tunelen zulaketa-

tik ateratako soberakinak botatzeko.

Biaduktu eta lurrazaleko zatiak dagokionez, AHTren trazaketak agerian doan zatietan 2 km biaduktu handien bidez egiten du, eta 4 kmko mendimozketa eta lubakietan.

Nafarroako korridorea eta *Euskal Y* delakoaren lotunea Tolosaldean eginez gero, honen emaitzak eta ezaugarriak honako hauek izango lirateke: 23 kilometroko trazaketa egin beharko litzateke. Honen barruan, ondorengo udalerriak izango lirateke kaltetuak: Bedaio (Tolosa), Ugarte (Amezketta), Orendain, Alegia, Altzo, Tolosa (Aldaba, Bentaundi) eta Ikaztegieta.

Tunelak dagokionez, guztira

beste 13 km inguru. Beraz, %55 lurrazpitik. Aipagarrienak, Zarateko tunela (Bedaio eta Nafarroako mugan, 5 km ingurukoa), eta Orendain azpian AHTren lotuneak egingo litzuzketen lau tunelak, bakoitza kilometro batekoa.

Hondakindegia ere beharko lirateke, zulaketen ondorioz, eta ateratako hondakinen lurrazalera 70 hektareatakoa izango dela kalkula daiteke.

Nafarroako korridoreak lurrazaletik eta biaduktuen bidez, Tolosaldean agerian 10 kilometro egingo litzuzke: horietatik 2,5 biaduktu handiek.

Jende asko jabetu da egitasmo erraldoi horrek ingurumenari, nekazaritzari, gizarteari, ekonomiari eta lurralde oreka-

ri eragingo litzuzketen kalteen larritasunaz.

Horregatik, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa deitzen du hilaren 10ean Donostian, Espainiako Gobernuak zein Jaurilaritzak *Euskal Y*-aren eraikuntza lanak abian jartzeko hartu duten erabaki larriari erantzuteko, eta AHTren inposizioak jendarztean eragiten duen desadostasun zabalaren adierazteko.

Tolosaldeari deialdi zabala egiten diogu, beraz, 17:30ean Anoetako estadiotik abiatuta egingo den manifestazio horretan parte hartzeko.

PATXI ITURRIAGA ETA MANU ODRIOZOLA (TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ELKARLANAREN IZENEAN) ▶ TOLOSA

BEDAIO ▶ GIZARTEA

Harri Jaia gaur egingo dute, aspaldiko kazkabarra gogoan

Baserria eta uzta eguraldi txarretik babestearen aldeko eguna, jai bihurturik

NEREA URBIZU

Jasokunde Eguna pasatu eta hurrengo osteguna izaten da Bedaioko Harri Jai Eguna. Dua urte asko, garai hauetan kazkabarra ikaragarria izan zen Bedaion, eta honek uzta gutzia txikitu egin zuen, baserri batzuek gain. Hondamendia, hortaz, Balerdiapan.

Horren ondorioz, eta ondamentia ikusita, erreguak eta otoitz modukoak egitea erabaki zuten bedaioarrek, gertaera hauek errepika ez zitezen. Harri Jai Eguna, alegia.

Aurtengo egitaraua

Gaur egingo dute egun hori. 11:00etan meza ospatuko dute Bedaioko elizan. Ondoren, hamaiketako legea egingo dute Artubi elkarteak.

Lehenengo urtean bezala, bertsolariak ere bertan ariko dira, goiza eta arratsaldea girotzeko asmoz. Aurten, Angel Larrañaga eta Mañukorta ariko dira Bedaion. Ez dute gai zehatzik landuko, librea izango baita.

Bazkaria 14:00ak aldera egingo dute Artubi elkarteak. Bazkalostean, kafearekin batera, gutxi gorabehera, Xabier eta Mikel anaiak egongo dira, trikitixa eta panderoa joz. Bazkarira nahi duen gutzia gonbidatuta dagoela gogoratu dute antolatzaileek.



laz, Agirre eta Mañukorta izan ziren bertsoetan. Aurten ere, Mañukorta izango da, Larrañagarekin. N. LATABURU

ALEGIA ▶

San Juan oinezkoentzat izanik, autoak ez dira sartuko

Astehenean piboteak jarriko dituzte, zama ordutegiak kontuan, salbuespenak izanik

ERREDAKZIOA

Alegiako San Juan kalea oinezko izateko emandako pausoen barne, astehenean autoen igarotzea mugatzen duten piboteak jarriko dituzte. Beraz, kale honetan garajeak dituztenek, komertzioetakoek eta eskaera bereziek soilik igaro ahal izango dute, karga-deskarga ordutegitik kanpo.

Karga deskarga ordutegia astehenetik ostiralera 08:00etatik 12:30era da. Larunbatetan, 11:00ak arte. Karga deskarga ordutegian autoa albo batean utzi daiteke, gehienez 15 minutuz.

Tolosaldeko Telefono Listin berria egiten ari gara. Komertzio bat badezu, laister **TU Comunicacion** eko bisita bat edukiko duzu. Hau da gure lazko portada, ez nahasturik.

Hala ere, bertan publicitateak egin nahi badezu, 943214141/439200887/439200887 deitu dezakezu.

Bridge UDAKO IKASTAROAK UZTAILA 2006

Haur, gazte eta helduentzat **FRANTSESA & INGELESA**

FIRST eta ADVANCED azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak

Talde txikietan • Ordutegia taldeen arabera

Pablo Gorosabel 2 - 1A • 20400 Tolosa
943 65 00 70 • 680 222 526
www.bridge2005.com • bridge2005@bridge2005.com

IRITZIA ▶ JOANMARI LARRARTE (EKT-KO KONTSEILARI ORDEZKARIA)

Diru gutxi gehiago, eta hori erdarazko hedabideentzat

Aste honetan ezagutu dugu Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak 2006rako hedabideentzat prestatu duen diru laguntza deialdia. Sektorearen iritzia ez da kontuan hartu eta gure ustez kezkatzeko moduko hainbat gai planteatzen dira deialdi horretan.

Euskal prentsako eragileek, urteetako izozteari aurre egin eta diru laguntzen diru partida eguneratzeko (2000tik 2005era ez zen diru laguntzen partida handitu), 1.000.000 euroko hazkundea eskatu zuten, eta ikus-entzumezkoentzat lerro berri bat zabaltzea, baina hori ez da bete. Diru laguntzen deialdian iaz baino 950.000 euro gehiago jaso dira, baina 350.000 telebistarentzat direnez, prentsa, irratia eta Internetarako hazkundea 600.000 eurokoa izan da. Bakarrik KPIren arabera eguneratzea aplikatzeko 825.000 euroko hazkundea beharok litzateke. Eta hori gutxienez da, sei urte hauetan euskal prentsan izan den hazkundea sendotzeko hori baino diru gehiago beharko litzateke eta.

Eta deigarriena ez da Kultura Sailak beharko litzatekeen baino diru gutxiago banatuko duela. Deigarriagoa da ikustea 600.000 horietatik 507.650 euro erdarazko hedabideentzat izango direla, horietan euskarazko gehigarriak egin ditzaten sustatu nahi dutelako. Beraz, gaur egun ezinean ari den euskal prentsarentzat laguntza handiagoa behar dela planteatu ondoren, hedabideentzat

aurreikusitako diruaren zatirik handiena erdarazko hedabideentzat gorde dute (herenegun *Berria*-n argitaratu bezala, euskal prentsarentzat iaz baino 59.050 euro gehiago bakarrik aurreikusi dira).

Kultura sailetik behin eta berriro esan zaio euskal prentsaren sektoreari diru laguntzak ezin dituela handitu baliabide nahikorik ez duelako; bada, gutxi bada ere, aurten izan du laguntzak zertxobait handitzeko aukera eta, aukera hori izan duenean erdal prentsaren aldeko hautua egin du Kultura Sailak, nahiz eta diru laguntzaren xedea «euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatze» deialdia dela dioen Agindua. Bitartean, 2000n Hernaniko *Kronika*-k urrututako bidetik Euskal Herrian kaleratzen diren 8 tokiko egunkarietzat (*Kronika* eta 7 *HITZA*) 322.200 euro baino ez ditu aurreikusi Kultura Sailak, nahiz eta egunero 50.000 etxetik gora iristen diren. Zer baloratu eta saritu nahi dute?

Argi dago, Kultura Sailak ez du euskarazko prentsa lagundu nahi, nahiago du gaur egun bezala ezinean ikustea, enpresak sendotu eta euskarazko komunikazio eremua zabaltzen ikustea baino. Hori ez balitz horrela izan, diru partida handitu denean, euskarazko hedabideen beharrei erantzuteko erabiliko zuten dirua, ez erdarazkoak laguntzeko.

Ez da momentoko gaia ea erdarazko hedabideek euskaraz zerbaite egiten ba-

dute laguntzarik behar duten; gauza da «euskarazko hedabideak sendotzeko» deialdiaren %10etik gora erdarazko hedabideak sustatzeko erabili nahi duela Kultura Sailak. Eta errespetu guztiarekin, hau onartezina da.

Euskal hedabideak (duela 30 urteko aldarria gogora ekarriz, «gu gara euskal prentsa», euskaraz egiten dugunok, alegia) izugarriko ahalegina egiten ari dira urtero kalean gero eta produktu duin eta lehiakorragoak jartzeko, lan baldintzak hobetzeko eta diru laguntzeko mendetasuna txikitzen joateko. Baina ezin da ahaztu erdarek inguratu eta gairaditutako eremuan egin behar dela lan, gaur egungo merkatua ez dagoela bere beharrei erantzuteko prestatuta, eta zaila egiten ari zaiola proiektuak bideragarri egitea diru laguntzarik gabe. Egoera honi buelta emateko, inbertsio handiagoak beharrezko dira produktuak sendotzeko, lan baliabideak hobetzeko eta, batez ere, merkatura iristeko. Benetan estrategikoa den sektore honetan inbertsio handiak egin ezean, euskarazko hedabideak ezin dute bigarren mailatik gora egin. Kioskoan ikusezinak izaten eta *normaltasunera* iritsi gabe jarraituko dugu. Hori aurre egiteko, publizitateak jasotzen denaz gain, harpidedunen ahaleginean oinarritzen da euskal prentsaren etorkizuna, diru laguntzak serio planteatu ezean. Hain zuzen ere, mundu osoan ordaintzetik do-

akotasunerako bidea egiten ari denean, euskal prentsa kontrako bidea egitera behartuta dago, gero eta gehiago kobratzera.

2005eko diru laguntzen berri izan genuenean (urte bereko abenduan), esan genuen Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren eskutik ez genuela ikusten euskal hedabideen aldeko apusturik, eta gauza bera esan behar dugu orain. Oso polita geratu zaie Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian honako idaztea eta onartzea: «Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu Administrazioak». Baina ezer gutxiarako balio du aukera dagoenean ez bada estrategikotasuna kontuan hartzen eta indar daitzen laguntzen.

Kultura Sailak gauza batez konturatu behar du: sektorea indartzeko behar besteko inbertsiorik ez bada egiten, euskal prentsa beti ibiliko da ezinean eta diru laguntzen premian. Etorkizuna ziurtatuko badugu, orain indartu behar dira euskal hedabideak, gerora diru laguntzarik gabe proiektu bideragarriak izan daitezke. Sektorea etengabe ari da ahalegin horretan. Administrazioak ere benetan onartzen badu estrategikotasuna eta norabide bera hartzen badu, etorkizun oparoa izan dezakegu. Sektoreak eutsiko dio bere bideari; aldatuko al du Kultura Sailak bere jarrera?

ANOETA ▶ ANTZERKIA

IMANOL GARCIA

Hamarakada batzuk atzera egingo dute aurtengo herri antzerkian. Ttanta taldearen *El florido pensil* obra ezagunaren pasarte batzuk hartu dituzte eta horiek prestatzen ari dira. Guztira, lau eskainiko dituzte. Lehenengo urtetan bertso antzerkia egin bazuten ere, iaz eta aurten bertsoz gabeko antzerkiak izango dira, baina beti ere umorea ardatz hartzen dute emanaldia sortzerakoan.

El florido pensil obra ezagunak frankismo garaiko egoera islatzen du, eskolaren ikuspuntutik: euskararen debekua, errepresioa, orduko baloreak eta gizartea...

Antzezanari herriko kutsua gaineratu diote, Patxi Sanz antzerkiaren zuzendariak HITZARI azaldu dionez: «Urtero herria-

rekin lotutako gai bat lantzen dugu, eta obra lekutzen den garai haietan eskolan ibilitakoekin hitz egin dugu. Hain zuzen ere, haiek kontatutakoa sartu dugu gidoian».

«Izaera herrikoa»

Egokitzapen horretan sartzen dira, esaterako, Anoetan izandako irakasleak nola gogorazten zuten «*barita magikoa*» erabiltzeko aukera zuela. (Iragana berreskuratzen saiatzen gara horrekin guztiarekin, eta garai horiek bizi ez zituztenentzat ezagutzeko modu bat da», dio Sanzek.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zergatik da garrantzitsua HITZA ordaintzen jarraitzen.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai, Berrobin. Prezio negoziagarria. 618 83 32 56.

‘Florido pensil’ anoetar erara

Hogei herritar inguru herri antzerkia prestatzen ari dira festetarako



Zenbait herritar antzezanaren pasarte baten entsegua egiten. I. GARCIA

Hogei lagun inguru ari dira parte hartzen antzerkian eta Aste Santuaren ondorenetik entsegua egiten ari dira. «Izaera herrikoa du egitasmo honek. Herritarren iniziatibaz sortua da eta guztion aportazio eta sormena bultzatuz bu-

rutzen dena», azaldu du zuzendariak. Entseguetan gustura aritzen dira anoetarrak. Hain justu, ikusleagoak tarte bat ondo igarotzea dute helburu obra prestatzen ari direnek.

Herri borondataren aldeko festen egitarauaren baitan

egingo dute emanaldia, ordu-bete ingurukoa. Hilaren 9an izango da, ostirala, 22:30ean eta frontoian. Urtero legez, jendez gainezka izango da pilotalekua. Gainera, antolatzaileek azaldu dutenez, ezusteko bat prestatzen ari dira.

LEITZA ▶ UDALA

UPN berriz joan da batzarretik salaketa kartel bat dela eta

Puntu «garrantzitsuak» tratatu ondoren joan zen; Larrainek 182.2 artikulua aplikazioa eskatu zuen kartel horretan

JAIONE ASTIBIA

Bigarren batzarrean jarraian, UPN taldeak alde egin zuen lehengo ostiraleko udalbatzarretik, jendardean Larrain Herri Plataformako ordezkariak agerian jarri zuen kartela ikusita. Maiatzaren 5ean ez bezala, oraingo honetan beraien usuez («garrantzitsuak») ziren bi puntu eztabaidatu ondoren, atera ziren bilkuratik bertara joan ziren talde horretako 4 kideak. Talde horrek 5 leku ditu hartuta. Geroagoko puntu bat eztabaidatu ezinik gelditu zuen gainerakoak. Aralarko 3 eta EAko 2, kuorum faltagatik.

Larrain herri plataformako ordezkaria, batzarra hasterako, *Ez dagokizuena itzuli; 182.2*

artikulu orain zioen kartelarekin jarri zen jendardean, legegaldi osoan bezala, bere garaian talderik bozkatuena izan arren Udalaren osaketatik kanpo utzitakoa izaki, Larrain dagoz-kion zinegotziak itzultzeko eskatuz. UPNko kideek, aurreko aldiaren bezala, alkateari kartela kenduarazteko eskatu eta eskariak aurrera egin ez zuenez, bilkuratik alde egitea erabaki zuten, nonbait «kartelak erakustea eragozten ez den bitartean».

Gai batzuetarako gelditu

Baina joan baino lehen, batzarreko gai zerrendako aurreneko bi puntuen eztabaidan parte hartzea ere erabaki zuten, «ho-

riek garrantzitsuak» zirela argudiatuta.

Hala, «Hirigintza Planaren aldatuta puntu baten hasierako onespena» zen bat. Hau ez zen onartua izan, hain zuzen ere, bozketako garaian UPNko ordezkariak abstenitu egin zirelako; 11 bozketatik 6 aldeko behar ziren onartzekotan, eta Aralarkoen eta EAkoen bostak ez ziren nahikoa.

Bestean, berriz, atal bat, «plantila organikoaren aldaketari» zegokiona, aho batez onartu zuten: haur eskolako lanpostu bati iaz ezarritako funtzionario izaera kentzearena, alegia. Baina beste atala «Haur Eskolako bi hezitzaileen lanpostuak lehiaketara ateratzea», bertara joandako jende-



Leitzako udalbatzako kide batzuk aurreko batzar batean; ezkerretara UPN taldeko hiru ordeakari. JAIONE ASTIBIA

arengan jakinmin eta kezka eragin zuen puntua, mahai gainean utzi zuten.

Handik aurrerako eztabaidagaitan UPNk alde egin zuen eta lur-trukaketa bati buruzko erabakia hartzerik ez zuten izan gelditu zirenek, «behar hainako kuorumik ez izateagatik». Horrelako moduko gaitan, «gehiengo absolutua ez baina, gehiengo kualifikatua behar delako», kontsultatutako iturriek argitu dutenez, hots, udalbatzaren 2/3ak.

Azken bi batzarretan «areagotu den egoera ez-normalizatu honi behingoz konponbidea eman» behar zaiola dio Larrainek, eta horretarako «jabetuta dauden hiru zinegotziak itzul-

tzea besterik» ez dagoela. UPNren esku daude bi; Aralarkoren esku, bat.

Ilegalizazioa gainditzea

Horren harira, batzar horretan bertan, azken puntuan, Larrainek aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuen Udalak, Aralarren eta EAren bozkekin: «PSOEn ilegalizazioa bertan behara uzteko» eskaera egiten ziona eta «herriarren babesa jaso zuten hautatuek beren eskubideak gauzatuak izateko, urratsak emateko konpromisoa» hartzen zuena. Mozioak zioenarekin ados agertu zen Aralar, baina «beste bide batzuk badaudela» esan zuen.

LEITZA ▶ KULTURA

Plazaola aldizkaria osatzeko deia

Azalerako proposamenak nahiz idatziak aurkezteko epea irekita dago

J. ASTIBIA

Santiburtzotarako prestakizunetan ari dira Aurrera elkartearen ere eta Plazaola aldizkaria osatzeko deialdia egin dute: azalaren lehiaketa batetik, idatziak aurkezteko aukera bestetik.

Leitzako festak gai izanik, «herrian bizi den edozeinek» parte har dezake azalaren

lehiaketan. Hori bai, ekainaren 22rako, bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, nahi duen teknikaz egindakoak, «*Leitza; 2006; Tiburtzio Donearen Pestak; 28. zenbakia* hitzak agertuz», beti ere «50 x 65 zm-ko neurriak gainditu gabe». 16 urtetik behera eta gora, bi sail egin dituzte eta sariak ere hala-ze jasoko dituzte, San Tiburtzio egunean, ekainaren 25ean

bozkarik gehien jasoko dituzten biek.

Bestalde, aldizkarirako idatziak aurkezteko epea hilaren 24an bukatuko da. Idatziak Aurrerako buzoian uztea nahikoa omen da, «disketean ematea eskertuko» omen dutelarik. Argitaratzeko izengoitia erabili omen daitekeen arren, izen-abizenik gabe ailegatutakoak ez omen dituzte kaleratuko.

LEITZA ▶ POLITIKA

Egoera politikoaren konponbidea eskatuz

Bihar iluntzerako, Lopeneko iturri aurrean elkarretaratzea egiteko deialdia egin dute

J. ASTIBIA

«Egun bizi dugun egoera politiko zalantza eta erasoz betetako honen aurrean», elkarretaratzea deitu dute bihar iluntzerako. «Ezker abertzalearen mintzakidetzaz Auzitegi Nazionalera joanarazi dute, «pren-

tsaurrekoa eman izana delitu izugarria» egin izanagatik», azaldu du Barrenak. Horrela, *PSOE errepresari stop; konponbide demokratikoa orain* aldarri hartuta, elkarretaratzea egiteko deialdia, bihar, ostirala, 20:30erako egin dute, Lopeneko iturrian.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian



AGENDA ▶

DEIALDIK

Ibarra. Gorritira irteera antolatuta du Haitzetan Raju mendi taldeak hilaren 11n. *Sua* filmerako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernatan, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00an.
Tolosa. *Emakumearen aurkako indarkeriari aurre hartu* lelopean, kontzentrazioa. 20:00etan, Trianguloan. Tolosaldeko Emakumeen Mundu Marbako plataformak deituta.

HITZALDIK

Anoeta. *Globalizazio neoliberalaren aurkako borroka Euskal Herrian eta munduan.* Paul Nicholsonen eskutik. 19:00etan, Gaztebean. Maiatza Gorriaren baitan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Shona Auerbach zuzendariaren *Mi querido Frankie* filma. 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36, 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
21:00-23:00. *Gau bero.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Istorioetatik ikasteko

TOLOSA ▶ Haurrentzako beste liburu bat kaleratu du Joxan Ormazabal idazleak: 'Amaren titi-xorroak'; ipuinak, poemak eta haikuak biltzen ditu

ERREDAKZIOA

Haurrentzat idazten due-la esaten du maiz Tolosan bizi den Joxan Ormazabal idazle zegamarrak. Eta bere azken lanean ere hala xe egin du: haurren gustukoak idazten saiatu da *Amaren titi-xorroak* liburuan (Elkar). Hiru osagai ditu lan honek: ipuinak, poemak eta haikuak (Japoniako literaturako olerkiak). Hain zuzen ere, lehendabiziko ipuinak ematen dio izena liburuari.
«Baina ipuin guztiak ez dira barregarriak, badaude liburuan gai serioak ere, eguneroko bizitzan aurki ditzakegunak: heriotza, ezindua, Down sindromea...». Istorioetatik ikasteko aukera dute, hala, gazte-txoeak. «Poemak ere batzuk umorezkoak dira eta beste batzuk sakonagoak, filosofikoa-goak. Haikuak, berriz, denak zehatz neurtutakoak dira: hamazazpi silaba hiru lerrotan banaturik», diote Elkar argitaletxeok liburuaurren aurkezpenean.
«Handik eta hemendik zati



Joxan Ormazabal, artxiboko irudian. J. SAIZAR

batzuk hartuz irakur daiteke liburua, aspertzeko beldurrik gabe». Hala, azaldu dutenaren arabera, *Bihotza zubi* eta *Txoko txiki txukuna* liburuetan markatutako bideari jarraitu dio egileak azken lan honetan.
Marrazkiek ere garrantzi handia dute *Amaren titi-xorroak* liburuan. «Ez dago zalantza-

rik Jesus Lucasen marrazkiak izendatzeko hitzik egokienak sormena eta kalitatea direla», adierazi dute Elkar-ekoek.
Azken sormen lan honetaz gain, beste hainbat liburu ere idatzi ditu Ormazabalek, besteak beste, *Hiztegi jolastia*, *Josebiñe I*, *Saturna*, *Kotti*, *Aitona parapentean*, *Antonio Bolas...*

FITXA ▶

Ipuinak, poemak eta haikuak biltzen ditu Joxan Ormazabalen azken lanak:

- Egilea.** Joxan Ormazabal.
- Marrazkigilea.** Jesus Lucas.
- Argitaletxea.** Elkar.
- Bilduma.** Xaguxar 143.
- Adina.** 10 urtetik aurrera (urdira).
- Orri kopurua.** 124.
- Salneurria.** 9,50 euro.



Liburuaren azala. HITZA

AGURRAK ▶



Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte

ZORIONAK
Naira.
Zorionak
etxekoan partetik.

ondarroan
Antxoa eguna ekainak 3

- >09:00etan: Ondarroako 11. Urpeko Argazki Sari-Irekia.
- >11:30etan: VII. Itsas eskolen arteko traineru-estopada
- >12:00etan: Antxoa fabrika. Antxoa-xerrak dastatzea eta txakolina. Ondarroako I. Antxoa kontserba xerra lehiaketa.
- >13:30etan: "Ondarroako Arraina" eta Agurra.
- >14:00etan: Kresaletan Jantokia irekitzea, Itsasaurre plazan. Txartelak: Kafe Marinan edo erreserban 94 613 40 44ra deituta.
- >18:00etan: Antxoa pintxoan dastataketa eta sagardoa.
- >22:00etan: KREGGAE GAUA Arrigorri hondartzan; LEE "Scratch" PERRY (Jamaika), SKA CUBANO (Jamaika, Kuba eta Ingalaterratik) eta THE STARLITES (Errioxatik).

hitza Harpidedunen txokoa

Aisialdi planik ez duzula? HITZAK aukera paregabea emango dizu

- Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
- Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza • Araba etorb.5 • TOLOSA**
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1 TENERIFERA BIDAIA
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

LAUTREK
bidaia agentzia

korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

2 OTORDU EDERRA
2 lagunentzako Tolosako Zumeta jatetxean

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak	
Harpidedunaren kodea.....	
Izena.....	
Abizenak.....	
Helbidea.....	
Herria.....P.K.....	
Telefonoa.....	
Pelektronikoa.....	